


**Orain administrazio
batera joan beharrik
gabe egin ditzakezu
Etxeko Langileen
Sistema Bereziko
tramite guztiak**

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza
Nagusiak (GSDN) eskaintzen dizkizu:

- Zerbitzu elektronikoko intuitiboak eta erabiltzeko errazak, kudeaketa arina eta erraza izan dadin
- Erabilgarri dago eguneko 24 ordutan eta urteko 365 egunetan
- Segurtasuna eta berehalakotasuna komunikazioetan

Informazio gehiago:

<https://sede.seg-social.gob.es>

 901 502 050

 @Info_TGSS



**Etxeko
Langileen
Sistema Berezia**

**Zerbitzu
elektronikoak**

NIPO: 275-17-010-7



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

 TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Zerbitzuak

Etxeko Langileen Sistema Berezian alta ematea

Zerbitzu honen bidez, langilearen alta gauzatzen da Etxeko Langileen Sistema Berezian. Enplegatzaileari, etxeko langileari eta lan-harremanari buruzko datuak eman behar dira. Lan-jarduera hasi baino lehen tramitatu behar da langilearen alta, eta gehienez 60 egun lehenago.

Etxeko Langileen Sistema Berezian baja ematea

Zerbitzu honetan etxeko langilearen baja gauzatzen da Etxeko Langileen Sistema Berezian, lan-harremanaren amaieraren berri emanez. Lan-harremana amaitzen den egunetik hasi eta 3 egun naturaleko epean tramitatu beharko da baja.

Etxeko Langileen Sistema Bereziko datuak aldatzea

Zerbitzu honen bidez, dagoeneko jakinarazitako lan-harremanaren informazioa alda daiteke, aldaketak izan badira, esaterako, kontratuan, ordainsarian edo lan-orduetan.

Langileen alta/baja zaharrak ezabatzea Etxeko Langileen Sistema Berezian

Zerbitzu osagarri honen bidez, alta eta baja zaharrak ken daitezke; azkenean, langileak ez badu jarduera hasi behar edo hasieran aurreikusitakoa baino geroago amaitu behar bada lan-harremana. Lan-harremana hasi edo amaitu baino lehen jakinarazitako altak edo bajak soilik ezaba daitezke.

Nola sartzen da?

Zerbitzuak erabilgarri daude **Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa** (<https://sede.seg-social.gob.es>), bide hauei jarraituta:

- Hasiera > Hiritarrak > Afiliazioa eta Izen-Ematea
- Hasiera > Enpresak > Afiliazioa eta Izen-Ematea

Gizarte Segurantzak onartutako **ziurtagiri digital** batekin edo **Cl@ve Permanente** (clave.gob.es) sistemako **erabiltzaile-izena + pasahitzarekin** sar daiteke.

RED baimenduak GSDNren **RED sistemaren** bidez ere sar daitezke Zerbitzu hauetan guztietan. Horretarako, alabaina, esleituta izan behar dute enplegatzailearen Afiliazio-zenbakia (AFZ) edo Etxeko Langileen Sistema Berezian dagokion KKK.

Nork erabil ditzakete?

Enplegatzaileek, etxeko eremuan ordaindutako zerbitzuak ematen dituen langile bat kontratatu nahi badute edo dagoeneko kontratatu badute. Enplegatzailea izango da Gizarte Segurantzako afiliazio-eta kotizazio-tramiteak egitearen arduraduna.

Etxeko langileek, enplegatzaile bakoitzeko hilean 60 ordu baino gutxiago lan egiten badute, eta Gizarte Segurantzako afiliazio-egintzak langileak tramitatu behar dituela adostu badute. Kasu horretan, langileak izango du kuotak ordaintzeko erantzukizuna ere.

Ezinbesteko baldintzak

Etxeko Langileen Sistema Bereziko zerbitzuak erabili ahal izateko, datu hauek izan behar dira:

Enplegatzailearen Kotizazio-kontuaren Kodea (KKK). Langile bati alta eman ahal izateko GSDZk ematen duen zenbakia da KKK. Egoitza elektronikoa, *Izen ematea eta CCCren esleipena enpresari indibidualentzat* zerbitzuan eska daiteke, bide honi jarraituta:

- Hasiera > Enpresak > Afiliazioa eta Izen-Ematea

Langilearen Gizarte Segurantzaren Zenbakia (GSZ). Lan-jarduera bat lehen aldi hasten duenean GSDNk herritar bakoitzari ematen dion zenbakia da. Egoitza elektronikoa, *Gizarte Segurantzako zenbakiaren Esleipena* zerbitzuan eska daiteke, bide honi jarraituta:

- Hasiera > Hiritarrak > Afiliazioa eta Izen-Ematea

Alta eta baja guztietan eskatzen dira KKK eta GSZ, enplegatzaileak edo langileak tramitatzeko dituen aintzat hartu gabe.